

ZUBEROTAR ANTZERKIAREN, EUROPAGANDIKO ETA EUROPARENGANAKO ERAGINAK

Txomin Peillen

Euskaltzain. Etnologian ikerlari

Zuberotar antzerkia, Euskal Herriko probintzi txikien ta behartsuen, gutxien hiritartua denean, bakarrik ematen da. Hala ere esan dezakegu XVII-XVIII mendean euskal antzerti gehiena Zuberoan ematen dela, edo hobeki esan beste herrietan egiten zenaren testu gehienak galdu direla.

Eskualde hortako antzerkiak bizpahiru mota ditu, eta zaharrenen artean (XV, mendean aipatzen baita P. Urkizuk erakutsi bezala) komedia herrikoa, *astolasterra* da. Hori ez dugu hemen asko aipatuko hortaz lan bat dauka lezoar idazleak emana. Holako antzerki motak. Europa guztian ematen dira eta norbaiten bizimoldea gaitzesteko eginak izan dira (frantsez *calibarry*, okzitanoz *charivari* delakoak kantuak baizik ez ziren, antzerkirik gabe ta horiei zuberotarrek *zintzarrotsak* esaten diete). Astolasterrak testu idatzia dauka askotan, antzoki bezala belardi bat eta jokulariak antzeslariak, jantzita agertzen dira. Astolasterrak gero ikusiko dugun *trajeria* -ren antza dauka (hamabosten bat salbatu da).

Bigarrenik *Ihautiriko komediak* badira Iñaki Mozos-ek Eusko-lkaskuntzarako argitaratu zituenak, Ihautiri bilduman, Horiatarik bi ezagun dira, *Pantzart*, *Bakus* (ez dakigu noiz idatzia, baina XVIII. mendean aldatuak orainarte esku idazkietan egon zirenak).

Hirugarrenik eta hau dugu gehienik aipatuko, *trajeria* europar antzerki eskolako fruitua da; artzainek antzesten dutelako *pastorala* esaten zaio ikusgarriari. Honek du argi ta garbi gorde. Aintzinateko antzerkiak Erdi-Arokoari eman jokua.

TRAJERIAREN ITURRIAK EUROPAN

Europar antzerti askoren moduan hasieran erlijiozkoa da, baina beste europar antzertien alderantziz eta ikusiko ditugun arrazoinen gatik hortan iraungo du, ia XX. menderaino. Erlijiozkoa zela baina ez zen beti elizak eta moralegielek begi onez ikusia izan. Agosti Xahok 1839.an eta geroztik Hérelle-k eta

besteek erakutsi bezala, zuberotar trajeriak —jokuaren aldetik, antzokiaren aldetik, egituraren aldetik— frantses *Mystères delakoaren* antzekoa da.

Batzuk urrutiegi baderamate antzerki horien zahartasuna, baina trajeriek XV. mendeko frantses antzerkien antza dutelarik eta Pariseko parlamentuak 1548.an azaroaren 17an debekatu zituelarik, hamaseigarren mendeko geldiene hortarik lehen trajerietara ezin da sinetsi, batzuk dioten gisa, handik berrehun urte, gai izan zirenik antzerki mota horren piztu egiteko. Badakigu, bestalde gaur frantsespean eta orduan beren jabetasuna zuten herri batzutan ez zutela Pariseko aginduari kasu egin eta halaxe Dauphiné herrian Alpetan, Austrian, Ipar Italian XVIII. menderaino bizirik iraun zuela *misterioak*, halaber aske zen Britainan (eta han XX. mende hasieran hil zen). Katalunian orainarte iraun du.

I.a. Zer du ikusteko Misterioekin, zuberotar trajeriak?

Egituraren aldetik frantses antzerkietan bezala, baina Aintzinateko teatro guztian legez, lehen prediku batean gaia orokorki azaltzen da, azken predikuan, jokularien ahulezien gatik barkamendu eskatuz, antzerkiaren moralata ateratzen eta askotan *Te Deum* batekin bukatzen. Misteriotan legez, kantuak, somuak, eta dantzaldiak tartekatzen dira, irriparrealdiekin.

Antzokiaren aldetik —Frantziako erlijio antzertian bezala— ezkerrean paradisuko atea da, urdinez margotua edo oihal urdinez eta ikusleak bere eskuinetik infernuko ate gorria ikusten du. Zuberoan berriz, ezkerreko atetik ateratzen, «jalkitzen» eta atzera sartzen dira «onak» «girstinoak» eta eskuinekotik «gaiztoak» edo «turkak». Eta «atzera» sartzen «dira» onak «*khiristiak*» eta eskuinekotik «gaiztoak» edo «*turkak*». Bitxi da nola Filipinetan ematen dituzten liturgia drametan —

gaztelaniaz/txabakano mintzairan— direnetan halaber bi atek eta giritinoak eta turkoak diren; nik dakidala iñor ez da arduratu zuberotar antzerkiaren ta Españatik etorritako horren ahi-detasuna bilatzen, gainera Manillako jendeak —oso amerikartuak direnak— esan zidaten ez zutela sekulan argazkietan baik izki.

Gaien aldetik. Pastoral edo trajeria zaharretako gaiak frantses misteriotako ta bretoinerazko misteriotakoen antzekoak dira gehienetan, baina ez beti ikusiko dugunez. Testamendu zaharreko gaiak, eta sainduen bizitzak dira nagusi, baina Testamendu Berriko gaiekin ikusiko dugu zer gertatu den. Frantsesek ordea *Miracle* izena ipintzen diote saindu baten bizitza edasten duenari, eta Zuberoan ez.

I.b. Zer bereizi dauka zuberotar trajeriak?

Bere berezitasun nagusia da, Europar antzerki zaharreko azkena dela, emankorra dela, ez dela urte guztiz eta artifizialki ematen diren —antzerki berdina gai bakarrekoa: Kristoren pasioa; beraz asko aldatu dela gaien aldetik, jadanik XVIII. mendean Errege ta Printzeren bizitza agertzen baita, frantses antzerki klasikoan bezala baina aintziñako egitura gordeaz, frantsesak trajeria ta komedia bereizten dituelarik eta pixkanaka, musika ta dantza baztertzen. Zuberoan berriz azken bi horiek geroago ta gehiago erabiltzan direlarik.

Beste berezitasunetan bada, sekulan ez dela Testamendu Berriko gairik erabili, frantses Misteriotan gai nagusiak zirelarik Kristo ta Birjina ez dira sekulan zuberotar antzokian agertu, orain arte.

Zuberotar antzerkiaren ezaugarri bereizien artean Satan delako dantzari ta ekintzen berotzaileak dira, nahiz europar liturgia dramatik deabrua agertu, ez du holako xotiltasun eta edertasunik; geure ustez eta Joanes Casenave-ren eritzia segituz, jadanik XIV-XV, mendean ematen ziren astolaster antzerkien gandik hartu lituzke trajeriak elementu batzu; bestalde —zein hizkuntzetan ziren ez dakigularik— Europa guztian liturgia dramatik ematen zirela dakigu —latinez askotan eta hortik ere atera luke zuberotar dramatik bere jokuaeren zati bat. Egia da Satan-ek ematen dituzten dantzak Zuberoan ez direla XVI-XVII, menderaino sartu, baina dakigularik pastoralak mendeetan zehar zenbat elementu gaineratuko dituen agian, galdu diren dantzak aurretik ematen ziren; bestalde trajeria bukatzen denean, subastaz irabazten du herri batek bere dantzariak, dantza zaharragoak antzokian eman ditzaten.

I.c. Galdu diren osagaiak

Gure antzerkiaren lekukotasun zaharrena 1839.ko zela zioten, nik Jusef Egiategiren obran 1780.urte ingurukoa, aurkitu arte eta hor argi ta garbi dago, zerbait aldatu dela Egiategik baitio «mozorrotuta», agertzen zirela antzokian jokulariak:

Mundu guzia ari delarik txarlatanen gisala, pastoraletan mozo-rra beti begitartean nahi girade agertu ezkiradeanak... (J. Egiategi, Lehen Libürria, Bilbo 1983, 1785.bukaturia, 77.orr.)

Mozorroa, beharbada, apezek ez ezagutuak izateko ipintzen zituzten ezen garai batzutan, kofesio ukatzen baizitzairen jokulari horiei. Baina Iraultzaren ondotik 1790.tik landa frantses errepublikatarrek debekatu zituzten mozorrotutako ikusgarriak, kontra-iraultzaren aitzaki izan zitezkelako.

Misterioekin berdinkatuz eta ez dakigularik beste moduan eman zenez, Zuberoan ez da ezagutu jokulari talde mixtorik; gauzen argitzekeo Pariseko parlamentuak zergatik Misterioak debekatu zituen jakin behar da: orozgain taldeak mixto zirelako eta morala laxo batean bizi. Geroztik ere ta XIX menderaino Elizako azkenak, ukatzen zizkieten talde mixtoetako jokulariei:

halaxe gau batez Erregeren antzeslari zen Molière handia, zakur baten moduan eta inolako bedeinkapenik gabe zulo ezegzagun batera bota egin zuten. Azkena izan zen Sarah Bernhardt frantses jokularisari 1923.an Elizakoak ukatu zizkieten. Debeku horien ekiditeko edo, zuberotar taldeak ez ziren mixto eta duela hamar urteraino halaxe zen jendeak ez zekielarik gehiago zergatik.

Ondorioz, laister idatzi ziren neskatilenzat pastoralak hala nola *Helena Konstantinoplekoa*, *Brabanteko Jenebiba*. Neskatila pastoraletan neskek gizonen papera egiten zuten, eta gizon trajerietan berdin gizezkoek andereena. Orain, eta eraman nuen eztabaida baten ondoren, Germain Lexardoi-ekin izan eztabaidaren ondotik, neska mutiak batean biltzen dira trajerietan —egia esan Zuberoaren jende hustutzeak hortara behartzen ditu herriak—.

Bestelan Jusef Egiategiren lekukotasunak darakusa, bere garaian antzeslariak laborari ta artzain zirela:

«egün batian Errege zena biharamenian bere gaitza motxetara ützültzen, hau da biziaren pastoral».

Gaur ordea ez dira zuberotar gehienak ez artzain ez laborari.

I.d. Aintziñatasuna

Aipamen zaharregirik ez izatea ez da harrigarri XVIII menderaino eskolatuek herriaren jaiak gaitzesten dituzte «divertissements grossiers» edo «jostaketa larriak» direlako, edo Jakés Belakoak 1665.an dion gisa «adoration du veau d'or» edo Urrezko txahalaren jaurespen bezala ezartzen baititu astolaster, maskarada ta komeriak. Halere «Gure antzerki zaharrena» saiotoxoan erakutsi nuen nola trajeria askotan XVII.mendeko hizkuntza dela agertzen eta *Errolan* ta *Clovís* delakoetan zubereroaz XVI.mendean erabiltzen ziren *neure*, *heure* izen ordainak, jadanik XVII.mende erditsutan osoki galduak zirenak.

Eskuen artean Bordeleko herri liburutegian, eta Pariseko Bibliotheque Nationalean har genetzazken eskuidazkietan, zaharrenak XVIII.mendekoak dira, eta pastoralaren emateko urteguna dakarte. Horrek ez du esan nahi testuak zaharrago ez zirenik eta zaharragoetan koplatuak —bestelan Cicero-ren kopia zaharrena XII.mendekoa izanki orduko idazlea dela esan behar genuke-, beti gabiltza arazo hortan lekukotasunik ez dela agertu, goizago, trajerien hasiera jakiteko. Zaharrenak, askotan Sainduen bizitza izanki honen esangura sakondu beharko zaigu, Zuberoako antzerkiari zerk bultzada eman zion jakiteko, ekonomiak ez hiritartasunak ez direlarik kausa.

Beraz, hipotesi moduan eman dezakegu, beharbada Biarnon XVI mendean eman ziren frantses Mystères-etatik etorri direla zuberotar pastoralak (Biarnon, frantsesezko eskuidazkietan gai berdina eta joku berdina agertzen dira); beste arrazoiengatik esan genezake XVII.mendean dela zuberotar antzerkia loratu.

I.e. Izenez, eta herrikoitasunaz

Ikusi dugunez *pastorala* esaten zaio batikbat ikusgarriari, baina ez du ezer ikusteko frantses «pastorale»kin ez eta gaskoin «pastoretas» delakoekin: ezen azken bi mota horietan artzainen bizi «algo idílico» erakusten delako. Oso gutxitan agertzen dira artzainak eta herriko jende xumeak antzokian, haundiekiz da iharduten trajerietan, beraz gaiaren aldetik pastoral edo *herrikoia* (astolasterren alderantziz), hizkuntza ere nahikoa artifiziala da, ezen garai hartan oso gutxi zekitelarik latinik eta ez gehiago frantsesik, hizkuntza horietako hitzez emokatu da trajeria; frantses antzerki klasikoaren «modako hizkuntza» ere agertzen da noiz nahi eta geroztik zubereroatik

galdu diren hitzak, antzerkiak frantses antzerkiak haundikien ahoetan ezartzen dituenak:

I.f. Noiz nola ematen. Norkematen.

Aintziña Pentakoste aldean ematen ziren, beraz lhautiritik urrun, Aste Saindua pasata, eta udako ta udaberriko lan haundiak abiatu gabe. Azken berrogei urteetan diasporako euskaldunen —baita turistaren ere— biltzeko Udan egin ohi da, uzta- la-abustuan, belarren egiteak ez baititu ez jokulariak ez eta entzuleak oztopatzen gehiago.

Lehen, orain bezala herriko jendeek, herri bateko jendeek ematen zuten, eta azken urteetan ere, herri batzu gai izan dira horrenbesteren egiteko (Urdirnarbe Santa Grazi, Muskildi).

2. TRAJERIA TA KONTRAERREFORMA.

Gaien aldetik trajeria protestanteen ideiei inardespina da, eta «higanaut-ak izan ziren Zuberoan, uste baino gehiago, gainera. Sainduen jaurespenaren aurka genituen protestanteak idolatria zela baitzioten eta baitio, Jakes Belakoa, zuberotar higanautak bere «Tablettes» liburuan. Naski, herri bakoitzak XVII. mendean bere eliza berritzen, edertzen, bireraikitzen zue- larik erreketen ondotik, bere sainduaren, bere elizako patroina- ren bizitza eskatzen zuen; izenez behintzat hogeitahamar bat ezagutzen da, (saindu ta santak kondatuz)

2.a. Didaktika.

Kontraerreformaren didaktikan, dotrina erakasketan sartu genetzake trajeria zahar gehienak eta haietan debozio ta eliza liburuko zatiak diruditenak aurki genetzake hona batzu *Santa Helenaren* bizitzatik ateratuak.

37. eskuidazkia:

Sinhetsi behar dūgū arren lehenik gure Jinkoatan hiru persona badela eta hirur pertsona orok Jinko bat egiten duela Zoin beitiara hirur horik, Aita eta Semea eta Espiritu Santu eta horik egiten dizue Trinitate Saindua.

Trinitate Santuko bigarren pertsona gizon egin izan zūzūn(zen) Birjina sakratuaren sabelean bederatzū hilabetez egon zūzūn. Sor ondoan egon zūzūn mūdūan hogeitahamirur urthe bizirik, orai gū giradean bezala mūdūko miserier esposaturik.

32. eskuidazkiak jarraitzen:

Hamabi apostolū beitzūtian haietarik Judas deitzen zen bat balinbazūan saldū ūkhen zizūn (zuen zuka) jūdioer eta krūtzifikatū zizūen ordūan haiek.

Phena lotsagarriak kūrūtxe baten gañean harek sofritū zūan bena mūdūan salbatzeagatik hurak oro egin zūitan.

37. eskuidazkiak berriz:

Gero kūrūtxe Santū batetan Pasione Saindua sofritū eta Bazko goizean hiletarik piztū.

Egon izan zūzūn gero berrogei egūnez lūrrian eta zelūlat igan (zerurat igo) Sabatore egunean

Andere, horik oro egiak dūtūztū eta horik hala direla sinhetsi behar dūzū

Anderea gūk ja gūre Jinkoa dizūgū eta haren legea hori dūzū

Halan Kristoren Pasioa sekulan ez bada erakutsi Zuberotar antzokian, haren bizitza kontatzen da pasarte batean; egia da, jadanik XVII. mendean bildurra emango zuela norbaiti Kristoren edo Birjinaren pertsonaia antzestea, jende harrokeria bezala hartua izango baitzen.

Beraz hasieratik eta azken pastoraletaraino gutxitan gertatzen da Aita Saindua edo Apezpiku baten ez agertzea. Ia, trajeria guztietan apezak bataiatzen, ezkontzen, hiltzen laguntzen ditu jendeak, baita Iraultza baino lehen *Te Deum* bat abestu ohi zen azken peredikuan nahiz Iraultza garaian, Errepublikaren aldeko bertsoak kantatzen ziren eta *Te Deum*-aren lekuan 1789.ko iraultzalarien eta nobleen aurkako «*Carmagnole*»a kantatzen eta dantzatzen hitz horiekien

Biba biba Frantzia
Biba biba nazioea
Biba biba republika
eta Asanblada guzia

Biba Frantziako jeneralak
eta soldadoak oro
zuentako lotsa dira
munduko erresuma oro

Emigrantek eta apezek
Frantziarik joan zirenean
uste zūen jinen zirela
sei hilabeteen barnean.

Etzūen uste Frantzian
hañ soldado abilik bazela
uste zūen oro erhorik (hilik)
burzagitūren zirela.

(Prodigoa, trajeria Urrustoiaren 1796ko Ekainaren 17a.)

Iraultza garai hortan eta Larrien mauletan medikuak idatzi zuen ez zituztela zuberotarrek, bildurrez beren foruak galdu ordezkariek Pariseko Etats Generaux delakotara bidali, baina gero pastoralak egitean ideologia kontrola izan zen. Halaxe 1793ko Martxo ta Ekainan Edipo erakusteko baimena eman zen «Errege baten krimenak erakusten baitzituena eta bere tiraniaz zigortua izan zelako Edipo, hala dio Mekola Garindañeko errejentak.

Gero frantseseko hitzak ere ezarri ziren pastoraletan Carmagnole delakoarekin hona batzu euskaraz ere eman zirenak

Vive vive la France
Vive vive la nation

aurretik euskaraz eman ditugunak 1794-1795.ean ez zen pastoralarik izan, 1796 Laruntzen *Karlo Magno*, Lexantzūn *Santa Helena*, *Prodigoa* Urrustoi Carmagnole-arekin, 1798 etik goiti arazorik gabe denak ematen dira *Godefroy de Bouillon*, *Brabanteko Genebiba*, *Santa Helena*.

Beraz XVIII.mendeko Frantses Iraultza hori diktatura bilakatzen den arauera, pastoralak bezalako jende bilketa ez zaio gustatzen; gainera, Abbé Grégoire iraultzalari apezak Iraultzari euskararen galeraztea asmozat eman ondoren, euskarazko emanaldi honek debekatzea araezko ondorioa zen. Ligi herrian diotenez debekua iruzurtu zen, ezen herriko zinegotziek, errejenta bahitu egin zuten pastoralaren tenorean, eta lau ore-

nez berekin eduki, bitartean *errejent'orde* batek antzeslekua aldatu, pastorala ei manarazi zuen.

2.b. Liturgia

Eliza erritoez kanpo eta dotrina erakasteaz lekat, pastoralak eta azkenek ere, bi elizkizun ondo gorde dituzte, orainarte beti ikusi ditugunak, bata da kristiar gizaundia. Errege edo Saindu ona hiltzen denean eta hil aurretik abesten duen agurra, bestea abesti haren ondotik Aingeruak agertzea, abestea, —batzutan «abade» bat daukatela lagun— eta entzulegoaren benedikatzea azken bi abesti horien doinuak Sallaberry-k idatzi zuen eta Bordes-ek erakutsi bezala XV.mendeko doinuaz datoz, baina gehienetan herioari buruzko gogoeta ederrak dira entzuleek igurikatzen, itxadoten dituztenak

Huna Iparragirre-ren hil kanta

A Angela hori nizün
nik ere deseñetako (asmotzat)
Jinkoaren esküetan niz
harek nau gobernätüko

Gero testuak dakar «Aingürüak sar eta khanta»

Koxe-Mari horra diagü
Jainko Handiaren mezüa
hire denbora igaranik,
paradüsüan sartzea.

Botzik izan hadiala
egin dük obra ederrik:
hire kantore horiekin
arbola egonen dük xütik.

Hiltzeko orduan «Iparragirre haritz txipi bat eskuetan har-türük kanta»

Ez zera eroriko arbola maitea
baldin portatzen bada Bizkaiko juntea
laürok hartuko degu zurekin partea
pakean bizi dadin euskaldun jendea.

Etxahun Irurik hil baino lehen idatzi trajena hortan halere, kuruak azken hitzak errepikatzen dituela, bukaera ezin hobea eman dio, trajenan, erlijiozko pentsamentuen ondotik, abertza-le gogoetak azken hitza duela. Naski, holako azkenik ez da eman joan ziren mendeetan.

Beretteren hiltzea ez da ere erlijio sendimenduz gehiegi bete, kasu hortan aingeruen atzetik abesten baitu

Libür da bizitzea
lüze da penatzea
Othean balio düa
batere sortzea?
Hola ürrentzekotan bizia
Egiaz ez deia (ez ote da) trixtezia

Etxahunen hiltzean abesten du Zuberoan Etxahuni egoizten zaion abestia nahiz Lapurditik etorria den noizpait Elizan erabiltzeko bertsolari batek eginak «Nahi baldin bagira»

Nahi baldin bagira hil eta salbatü
Arte hortan behar gira konbertitü
bekatü egiteko kostüma kitatü
leheneko eginetaz nigarretan sartü
berriz ez lerratü, ahalaz begiratü,
hiltzeaz orhitü (oroitü) ontsa kobesatü
denbora joanez geroz ezta profeitü,

Ondotik datoz beste bi bertso, eta bai behar den bezala aingeruek azkenik abesten, Etxahunek «azken hatsa», eman ondoren.

Gehienean hiltzen denak, «bere arima Jainkoaren eskuetan ipintzan du» XX.mendean.

Matalaz-ek

O! Zelüko Jinko hona
züre apez deitü naiana
huna ene azken orena
izan dadin handiena (berritan)

Oihenart-ek

O! Zelüko Jinko hona
jinik dü't azken orena
lagünt nezazü, nasaiki
izan dadin baliosena

Santxo Azkarrak

Jinko Jauna, zük pharka izadazü
orai arte egin bühürükeria
mündüa ihes, pausuan (atsedenean)
ütz nezazü
orai gozatzera Eüskal Herria.

Aimon (Aimunen lau semeak pastorala) (XVIII.mendekoa)

O! Zelüetako Jinko Handia
penak akabi zaizkia?
Gü beno irusagorik (zorionsuagorik)
egon Mündüan ote badeia ?

Pastorala zahar hortan Beretteren berrian bezala hiltzaileak Jainkoan zuzendu arren, duda bat azaltzen du. Duda hori, herrikoa da eta bitabostean hiltzera zoatzin zaharren ahotik entzun dut.

Hiru martirak pastorala zaharrean erlijiozko aipamena askoz luzeago da ta familiaz XVIII.mende ezkerko daukagun eskuidazkian, Got delakoa urkatzera epaitua denean abadeak du laguntzen eta hau entzuten da, XVIII.mendeko euskaraz irakurtzen dudana (argitara gabea)

O Jinko egiazkoa
orai dit orai ikusten
gaizki egilea gaztigatürük
noiz bait dela izaten.

Jüsto züzün jüsto
izan nendin pünitürük (zigortürük)
kometitü nian gero
hain krima handirik.

O Jesus justoa otoi
egidazüt miserikordia
eta akordea ene
bekatüen parkamentüa

Parkamentü galto (eske) naüzüe
Enperadoreari eta Jüstizian
Gamatiari, Phipipiniri
eta pertsona orori.

Egin düdan ogen (kalte) orotzaz
Jesus parkamentü deizüt galtatzen (eskutzen)
bai eta arima zuri Jauna gomendatzen.

(Sonü, jaiki Erretora Got-en gana eta mintza ekuraturik (geldirik) erretora) Hemen lau bertso ematen ditu erretorak eta hiltzera doanak azken abestia berritzen:

Jente honak orai nitan
orok exenplu harezazüe
eta Jinkoaren krainta (lotsa?)
rnaite üke züe (eduki zazue)

Frantzian Molière plaza-antzerkian, herriarentzat antzerkigintzan zebilenean, oroitu zen nola ez zen behar herria ikusgari batekin aspertu, eta Le Bourgeois Gentilhomme soinu ta dantzekin emanarazi zuenean, antzerkia «literatura huts» bihur ez zedineko saioa izan zen, halaber bere «Don Juan»en kente nahasketa apur bat praktikatzeko duelako. Horregatik Racine jan-senistaren antzerkia ez da herriarentzat egina, elite batentzat, edo Kortean herriak baino zerbaitekha gehiago zekitenentzat.

Gure zuberotar antzerkien gaiak eta askotan hizkuntza herrikoiak ez badira ere, erakusten kristiar dotrina iretsarazteko, Satanen humores behar zen, baita euskaldunentzat orduan parregarri zitzaien erdal hizketen erabiltzea ere. Bildur gara batzutan, gaur, idazle ikasiegi batzuek ez ote duten, maila altxatu nahiz, intelektuaren antzerki bat sortuko; arregura hori *Antzerki-k* argitaratu zidan artikulu batean azaldu nuen «Nora joan liteke euskal antzerkia?» (Antzerki, 13. Donostia, 1986, 14, orr.), azpimarratzen genuelarik

«ez da irakurtzeko egiña idatzi behar, baina entzutekoa, hirur partaide nagusiak gogoan: egile-jokulari-entzule.»

Norainoko eragina izan zuten kontraerreformako trajeria zaharrek, bizpalaur pondutan ikus genezake, esate baterako herri-kantu elizakoiak agertzean alde batetik, herri-xumeak nolani ere beti bere begirune ta atxikimendu izatea trajeria horien alde; erlijiozko ez ziren pastorala abesti batzu herriko bi-lakatzea, ezen gazte garaian pastoralak ere zer ziren ez nekierarik *Aimunen lau semeeren kantua* banekien, bere gaztelan-iazko kutsuarekin.

*Heben bagira Aimunen seme
heben balin bagünü kosi Maugis ere
ez ginateke lotsa Karlomano zure
Frantziako dozepareak oro jinik ere.*

Ikusten denez nahiz elizaren dotrinak ez duen hainbeste leku hartzen gaurko trajerietan, XVII-XVIII. mendeko kontraer-reforma testu haien oihartzuna gure egunetaraino iritxi da, gainera, aurten zortzi pastorala idazle zenbatzen baldin badi-tut haietarik hiru abadeak, apezak izatea ez da harrigarri; ain-zina zuzenki ta agerian ez bazuten 1905.raino eskurik sartu.

Nolanahi ere apezak zuzenduak ez baziren ere duda ga-be, trajeriak bertsoan ipintzen zituztenek apaiztegian egonal-dia egin zuten eta hala-holako latin esaldiak tartekatzen dituz-te beren obretan, iñondik kopiatu gabeak baina oroimen lasai baten frutuak direnak Eskuen artean dugun *Hiru martirak* ho-netan latina askotan agertzen da, trajeria idazleak okertua, ala kopiatzaileek itxuragabetua berdin du. Hona batzu abokatuen ahotik

Lucus: *Sinceritate nihil laudabilis (sic)*

Germain: *Tollit quemque Coeus (Coeus?) amor sui Liber inops
serve devite elicis Opes irrita mente matorem hominem (sic)*

Lucus: *In venit deus maleficium*

Germain: *beneficio bene erit*

Ez da dudarik okzitaniera parre eragiteko erabiltzen den moduan astolasteretan, holako zerbait egiteko du latinak tra-gerietan, ezen ez zaigu ahaztu behar, otoitz ta dotrinaz josia den antzerki horietan Satanek ta abokatuek eta Turkek sekula-ko itsuskeriak egiten eta parregarrikeriak esaten dituztela, XIX. mendean eta XX. mende lehen erdian sentzuratuko direnak.

Erregistro edo mintza tankeren, antzes tankeren nahaste hori Grezian, Erroman baita Erdi-Aroko antzertian dakusagu ere; pastoralak beti erabili du, —eta Shakespeare handiak ha-laxe zegian— frantses klasikoek dute antzerki mota edo kente-n ez nahastea inposatu nahi izan.

Zuberoan, trajeria ez da izan Kontraerreformak eman duen ekintza bakarra, gorago aipatu dugu elizagintza baina zuberotar eskolatuek eta oso bestelako hizkuntza zehatzago-an «garbiagoan», herriaren katolikotzeko zuberorazko libu-ruak idazten zituzten: halaxe Atanasio Bela-k elizako jaien erran nahiaz idatzia, luan de Tartas-ek *Ontsia hiltzeko bidea*, Atanasio Bela-ren dotrina edo *Katixima laburra*, Maitia-ren ser-moiak «*Pronus diebus dominicis*», *Arima penitenta* hamazaz-pigarren mende azkenean, trajerien parean dabilta; halaber maila altxatu nahiz —pastoralena aski bakuna— baitzen Mar-

tin Maister-ek Kristoren imitazioa, *Kempisa* XVIII. mendean itzultzen du.

Pastoralak ez ziren begi onez ikusiak elizaren gandik, ez gaien gatik, baina jendea biltzen zenean nahaskeria batzu, mozkorkeria eta dantzak, neska-mutilen arteko «xikoka» bat edo beste ikusten zelako. Baina Frantses iraultzak ditu gehien-bat zentsuratuko «Erregeren ta apezen legehauste ta gaizki egiteak erakusten baitzituzten» eta bestalde Errepublikaren al-deko trajeriak ez zelako idatzi; halere bizpahiru urte kendu ez-keru, Iraultza garai guztian eman ziren pastoralak, baina 1780.an Egiategik ez ditu begi onez ikusten diru gastaleku di-relako.

Beraz, orainarte antzerki hau Kristiar antzerkia izan da, nahiz Agosti Xaho Elizaren aurka izan, J.M. Bedaxagar-ek ohi-tura jarraituz aingeruak agerrarazten ditu eta herio abestiak or-dea, Agosti bere lekuan ipintzen du Jainkozale baina Elizaren etsai:

*Zelüko Jinko Jauna bardinzalea
zure bidetik nintzan bazterzalea
bena injustizien salazalea
eta beharrünanten lagüntzalea*

Harginbeltzago, framazoiago agertzen da urrengo bertso-tan

*Oitheat Herioa zoinen zorrotza
alargüntsa andere zurpail arrotza,
betiereko hütza eta izotza,
aile!aile!aile! Ai lürraren hotza*

*Basa ihizien oihü hüründaria
ülhün mineko auhen etsigarria,
epearen bürüko begiraria,
aihotz ebakizale izigarria*

*Joanen denak azken indarrak biltzen,
ahal balütü hantik mina ohiltzen
gero hur ta nigarrez lürra ixtiltzen
bakarrik sortü dena bakarrik hiltzen.*

(J.M. Bedaxagar, Agosti Xaho, Maule 1988,53. orr.)

Ondorioz eta azkenik genioke zuberotar trajeria, Europa-koaren alderantziz, eta nahiz gai profanoak erabili ez dela oraindikan laikoa.

3. PASTORALAREN BILAKAERAK

3.1. Hemeretzigarren mendeko berritasunak

Berritasun diot, batzutan berrikeriak dira, moda txatxar batek ohitura sano baten lekua hartzen baitu baina azalez aldatzen dena ere, mamiz egiten da.

Azalezko berritasunetan. Doinuarena da nagusia ezen oraindikan Xahoren garaian eta Vinson-ek ikusi lehenetan biz-pahirur ziren «sonüegileak» ez gaurko militar txarranga So-nuegile horiek arrabitari bat edo bi ziren txirribika edo bibolin txikiak jotzen, eta txirulari bat baina ez atabalez kordadun ttuntun ezti batez lagundurik. Militartze hori pastoraletan ez da bakarrik eman eresian, jantzietan ere, orainarte jokulari na-gusiek «kiristiek», eta «turkek» zerabiltzaten soinekoak XIX.mendeko frantses armadarenak zirelako, aintziñagokoak zein ziren ez dakigularik.

Mamizko berritasunak. Frantses Iraultzaren ondorioz gai profanoagoak agertu ziren, Frantziako erregerenak —euska-dunek erregezale izaten jarraitu baitzuten— eta geroago aize-aren norabidea segituz Napoleonkeriak izan ziren, hiru pasto-ralekin, *Bonaparte*, *Le Consulat*, *L'Empire* edo *Napoleon* (ax-ken hau XX mende hasieran ematen zen. Beraz Frantziaren kondaira ta Frantziaren goraipamena sartzekotan zen baina ez

behin betirako. Trajeriak ere ugari erakusten badira XIX.mendearen ez da asko «idazten»; eta idatzi hitzak trajerien kasuan zer esan nahi duen geroago ikusiko dugu.

Hemeretzigarren mendean frantsese horrez kanpo ez da ezer gehiagoldatzen pastoralen erakusketetan eta ama gureak gizaldi honen hasieran Larrainen, *bi egun irauten* zuen Joana d'Arc baten zatia ikusi zuen. Gorago aipatu militarren zibil agintariak aholkatu zuten apezpei, euskaldun gazteak baitziren Frantziako soldautzari ihes egiten zuten gehiengo eta soinekoari eta musikari egin zitezten (ik. Manex Pagolak aurkitu gutunak hortaz).

3.2. XX.mendeko berritasunak

Geroak dioke gertatu diren eta gertatzen diren aldaketak berritasunak edo berrikeriak diren ala ez.

Azalezko berritasunak.

— *Luzetasuna*. Bi egunetatik, lau orduz gaurko jendearen egonaria, entzuteko ahalmenak kontutan harturik gertatu da —beharbada zinean ez baita 2 orduz goitiko gutxi baizik egiten—

— *Jokulariak*. Beraien kopurua goiti doa ta gaur, jokulari, dantzari ta laguntzaileen arteko bilketan zein gehiagoka dabilta: laurogei lagunetara iristeko.

Beraien jatorria. Jadantik eta gaurgoiti zuberokan laborari ta artzain geroago ta gutxiago izango delako, ofizio guztietako iendek dira antzeslari.

— *Musika*. Geroago ta garrantzi gehiago dauka batzutan ikusgarriaren laurdenaz goiti kantatua baita, koruek, bakar-abestiek, ekitaldia zatikatzen dutelarik. Abesti bereziak eta berriak idazten dira, trajeria bakoitzerako. Txarranga ez da kendu, baina hobetu bai, benetako militar musika ezagutzen duena agertu baita erakasle ta zuzendari. Inor ez da ausartu aintziñako musikaren berpiztera.

— *Datak*. Lehen Pentakoste ondoan bezala, orain udan egiten dira, baita behin gauaz ere egin da —surten Muskildiko bat halaxe izango da.

— *Jantziak*. Turkoena izan ezik, eta hori erdi dantzako jantzia izanki, kristauen soinekoa aldakorra da ta askotan kondairaren garaikoa izaten da, azken aldietan.

— *Jokugintza eta antzokia*. Horiek ez dira asko aldatu.

Mamizko berritasunak

Bi apaizgai gazteek trajerien maila altxatu eta zuberotar antzerkiari bere iturriak eman zizkien, euskaldunen egiazko kondaira ezagutarazteko *Uskaldunak Ibarietan*, de Menditte eta d'Andurain bi nobleek idatzi zuten eta 1905.ean eman zen.

Halere abiatu zena hortan gelditu zen berrogei urteez, eta 1930.eraingo pastorala zaharrak ziren erakusten, hala non Hérelle-k uste baitzuen laister hilgo zirela, egia esan geroago ta arte handiagorekin ematen baitziren. Europar gerlarekin gelditu ziren naski emanaldiak, baina gerran eta Alemanian preso egon zen Etxahun Iruri-k itzuli zenean —Frantziak etsiturik— idatzi zuen

Aski sofrütüz nik hanitzetan
desir nūkean hiltzea
ez bazüntüdan hain maite üken
oi Ama Euskal Herria

Ta naski pastorala idazten hasiko denean euskaldun seme handien bizitza du edasiko, eta pixkanaka abertzale asmoak agerrazaraziko, bereiziki *Iparragirre* delakoan, Jean Haritschelhar-ek bere saio batean erakutsi zuen bezala.

Gaiak aldatu arren «gizaseme haundien» eta gizaundien bizitza osorik kondatzeko joera gorde da gehienetan eta hala izan da aurtengo *Xalbador* eta *Harispe-rekin*; egia esan trajeria zaharretan behin edo beste *Bizitza* hitza agertzen da «trajeria» hitzaren lekuan. Bakarrik Joanes Casenave saiatu da, holako

euskaldun bakun baten bizitza edasten bere *Pette Basaburuko* delakoan eta euskalduntsa batena *Maitena Basaburu* delako batean, baina zuberotar *Peru Abarka* horiek ez dute ondokorik izan. Idazle berdinak ere saiatu zuen herri bat *Santa Grazi* heroe bezala ematea, baina ondokorik ere ez bide hortatik, beraz badirudi urte batzutarako trajeriak «bizitza» izango direla.

Beraz hor ere Europar bideak ez dituela jarraitzen zuberotar antzerkiak lirudike, baina nere ustez jokugintza ez aldatuz, musika ta dantza gordeaz, orain berritasun bat da europar antzerki askorentzat eta horien begiratzea, honen gordetzea egoki. Bestelan ere galetan ez badira Grekoak, Juduak, Erromatarrek gehiago agertzen, askotan euskaldun handiak mundua zehar ibili baitira, Europar kultura guztiei ikustaldi bat ta omenaldi bat ematea da gertatzen: halaxe azkenik Jean Louis Davant euskaltzainak eman trajeria ederrean Abadia Urrustoi-koak agertzen dira Irlandan eta Irlandar musika eman zen, hango tresna gutxi ezagun batekin, hango borroka aipatu, hango doinu batean abestu, gero berdin Abisinian, Etiopian egon zirelako hango Negus eta bere jauntxoan aurkako gudak agertzen dira ta Abadia batek nola enperadorea salbatu zuen, bitartean Pariseko giroa agertzen da eta Euskal Herriko karlistadak; beraz gai irikiak dira, kondairak diaspora ta emigraketa ta herbeste jende egin gaituelako.

3.3. Abertzaletasuna eta gero

Zuberotar antzerkia manikeoa da, onak alde batetik eta txarrak besteetik halere batzutan Turko ta «txarren» artean gerta ditezke, frantsesak, inglesak, espanyolak, moruak eta euskaldunak ere ta «onen» artean mairuak (ik. J. Casenave-ren *Ibañeta*), baina ez nuke hori jorratuko, halere ez dut uste gure gizartearen kritikarik eta kritika zehatzik agertzen den zuberotar antzerkian: garai batean entzuleak, gehienak, lurginak, laborariak izanki, kaletarren trufa ta nekazarien zintzotasuna go-raipatzen zen eta oraindik *Pette* ta *Maitena-ren* pertsonaiak halakoak dira; badirudi, Etxahunen *Oi Laborari gaixoa* abestia langoa dela pastoralaren munduan, nekazaria izan ezik denak bizioz beteak.

Bestalde kondairako notinak aipatzean, leiendak eta ipuinak kontatzen dira, halaxe, nahiz dakigun Matalaz bere gisara aprobetxategia izan zela, heroe garbi bezala aurkezten zaigu eta ez bakarrik Zuberokan, bere itzalak ukatuz. Halaber eta J. Haritschelhar benetako Etxahun nor zen erakutsi ondoren Pierre Heguiphall-ek haren benetako bizitza pastoral ona egin arren, Barkoxtarrek eta besteek Etxahun-Irurik idatzi leienda Etxahunen gezurrekin nahiago dute. Hor ez dago agian ezer egiterik eta ikusle moduan diot, hau gertatzen dela askotan herri haundietan (ik. Errolanen ipuina Frantziar ta Napoleonen arrakasta), eta orduan zergatik ez gu bezala zapaldua izan den herri batean.

Zuberotar pastoralean agertzen den abertzaletasun hori, ordea, ia beti bakezalea da eta hona adibide batzu.

Santxo azkarra hiltzera doanean:

Eta nik aldiz pausüa (atsedena)
hüts eginen ahazteko (ahezutzeko)
Eüskal Herrian bakean
besteen artean bizitzeko
(Etxahun Irun-k egina)

Arlande Oiherart hiltzera doanean:

Bizi zitaiela lüzaz
bat osagarri honean,
bat anaitarzün osoan
bat eta bake handian
(Mikel Bertzaitz-ek egina)

Matalaz hiltzera doanean

*Biktima gisa noa, orain, orkeiala
ene hitzea bano izan eztdila
seküla etzazuela ixurarez odola
Jinkoak Xüberoa begira dezala.*

(Mikel Bertzaitz-ek egina)

Agosti Xaho pastoralean azken predikua

*Agian bümatüko da
zuhurtziaren azia!
lürtarrek boroga (nabari) beze
gure maitarün mezta.*

(Mikel Bedaxagar-ek egina)

*Gure haurrek egün batez
ez gitzaian ahalkeraz (lotsarazi)
aitetamen mintzajejan
mintza gitzaian eüskaraz*

(Abadia Urrustoi, 109.orr.)

Orain arte, behintzat, ez da abertzale baten kondairarik edo XX.mendeko abertzalaren bizitzarik eman trajerietan baina joan den mendekoak aipatzean, baita gehiago jende bakunen pastoraletan Joanes Casenave-k agertzen digu zuberotarren abertzale xedeak ere

*Egün behar geneizüen
azkarki jakinarazi,
Ziberoako den guziak
heben nahi direla bizi*

*Etsek (eutsi) dezagüla arren
guretako Züberoa
ta Zuberotarrek berek
bil herriaren geroa*

(Pette Basabürü, 74.orr.)

Eta Mikel Bedaxagar-ek

*Geroaren jabe gira
gure Zübero maitean
Eüskaraz ariko gira
hogeitabat gerren mentean!*

(Agosti Xaho, 56.orr.)

Ez dut bilduko zenbat aldiz «zazpiak bat» aipatzen diren XX.mendeko azken urte hauetan, baita *Gora Euskadi* daukaten kantua ere, *Pette Basabürü* pastoralean R. Idiarten hitzez edo.

Eta P.P. Bertzaitz abertzale ta alkate denak berdin, bakea gogoratuz:

*Ez erran gabe hargatik
berriz Gora Uskal Herri!
zure haurrek düe nahi
bakean, izan ziten bizi*

(A. Oihenarte 55.orr.)

Askotan gertatzen da gaur, entzule batzuen ahotik ezen Zuberonoan nonbait ehuneko hamar abertzale baita pastoraleta edo beste ez dela aski abertzalea izan; nik uste, gure herria eskolatu ta mailaz goratu nahi badugu ez dugu bota haundiekin ibili behar urrats haundiz eta astunez, baina «oski gorriekin» eta bare-bare, gehiegikeriek agian, beren harriaren maitzetik urrundu bailitzaizke, eta beren euskara alderdi txiki batzuen hizkuntza dela pentsatzera eroan. Gainera, abertzale problematika erabiltzen ez dituzten trajeriak idaztea aske da eta egingo da.

Azken berritasun gisa, azken predikuaren ondotik pastoraleta eman duen herriaren ohoretan egin kantua abesteko ohitura sartu da eta azken kantu hortan da askotan abertzale mezua entzuten; halere Iparragirre-ren azkenean Mikel Bedaxagar-ek,

kantua idazleari egin zion pastoraleta eman baino lehen hil baitzen Etxahun-Irurikoa.

PASTORAL IDAZLEAK ETA EMAILEAK

Hamazazpigarren mendeko antzerkilari batzuen gisa ez zuten gauza askorik asmatzen antzerki idaztean. Zuberokoan frantsesezko edo gaztelaniazko liburu bat hartu eta haren prosa euskal bertsoan ipintzea zen lana, halaxe Albert Leon-ek, frantsesezko *La Cronique Delaine* (XV.mendekoa) hurbildik jarraitu zuela *Santa Helena* zuberoraz eman zuenak. Ohitura hori Etxahun-Irun-raino izan da, naski de Menditte eta D'Andurain-en Ibañeta edo *Uskaldunak Ibañetan* sorkuntza lana izan zen eta Iruriko laborariarenak ere —ez beti— ezen Etxahun-Barkoxe-ren egiteko Pierre Espil-en frantses liburua erabili baitzuen ta Santxo Azkarra-ren egiteko Legasse ta Lafitte-ren «herio ta maitasun kondaira», euskaraz eta frantsesezkoa erabili.

Orare berria idazle guztiek-kondairako dokumentu batzua erabili arren ez dute besteen prosazko lan bat euskal bertsoan jartzen, sortzaileak ditugu.

Antziñako pastoral itzultzaile horiek, askotan eskulangileak ziren, burdin arotzak, zurginak, zapatagileak, harginak eta abar, —nekazaririk ia batere ez— Etxahun-Irurikoa gure mendean izanki nabarmenena; gero gaurkoen artean dakidanez, bi Betaramista, apez bat (letretan lizenziatua) banka gizon bat, komertzio biajantea, erakaslea, agronomoa, mekanikoa baditugu, beraz ordenean A. Agergarai, J. Casenave, R. Idiart. P.P. Bertzaitz, M. Hegiaphal, J.L. Davant, J.M. Bedaxagar, 32 urtetatik 67 urtetaraino dutenak.

Pastoral erakasle eta zuzentzale da *errejenta* orain bi daude bata zaharrena Battitta Urruty eta bestea gazteagoa J.D. Etcheberry, Martzel Hegiaphal zaharrak ez du gehiago egiten, gero ikasi dute Bertzaitzek eta Bedaxagar idazleek, gaztenek.

Iparragirre hiltzera doanean (hain zuzen bertsolariaren bertsoekin ematen zaigu mezua):

*Laurok hartuko degu zurekin partea
Pakean bizi dadin euskaldun jendea*

(Etxahun-Irunik idatzi trajerian)

Abadia Urrustoi, trajeriaren azken predikuan, gauzak garbiki esanak dira:

*Izarren argia bego
bakearen zerbütüko
eta ez gerla bideetan
ürgüllütan zartatzeko*

*Batarzüna egin bedi
munduaren zabalean
etsenplüa dügün eman
Euskal Herrien artean*

(J.L. Davant-ek egina, 112.orr.)

Abertzaletasun horren barruan naski gure pastoral egileek nahi dutena da, gure herriaren eta gure hizkuntzaren osotasuna gorde dadin eta garbiki diote denek:

*Maite züan aberria
lagüntü dü gisa oroz,
eüskaldünen mintzajea
goratü ezin haboro.*

*Hortaz egin nahi zuan
hizkuntza bat mündütarra,
Euskal herrian bederen
etxek (eutsi) dezagün eüskara*

BEHIN BATEKO ANTZESLARIENTZAT EUROPAR ANTZERTI BATEN HELBURUA

Zuberotar antzerkiak europar amateur taldei zerbait ekar lezake, hain zuzen ez baitasekulan ogipidea izan trajeriaren jokua Zuberoan —nork ordainduko zuen?— baina jokugintzan europarrei komeni litezken eta ezagutu dituzten jokuak itzul genetzakeie eta horixe da hain zuzen frantses antzolari batzuen eritzia zuberotar pastoralak ikustean, halaber pentsatzen dute katalanek ez du hain aspaldi beren Pasioa gal zorietan ezarri zutenean.

1. Amateur-en lagungarri dira, lehenik bertsoen ikastea kantuen bidez.
2. Lagungarri erehitzan psalmodiatzea, esateko ordeztu tonu baten hartzeko beharra ekiditen baitu.
3. Lagungarri da, erritmoan eta musika batez lagundurik antzokian agertzeak, ezen behin behineko jokulariak ez baitaki zer egin oinekin, nola ibili.
4. Lagungarria da kana batekin agertzea jokulari taldea, ezen erritmoa azpimarratzeaz kanpo, —amateur-ek ez dakitelarik zer egin eskuekin— hola eskuak berdin erabili behar dituzte.
5. Arpegiaren hieratismoak erretzen du jokularien espresabidea, ikusleak laister ulertzen baitu kristauak gisa batez eta turkak besteez mintzatuko ibiliko direla, bakoitzak bere musika daukela.
6. Gorrien eta urdinen atekak izatea ere jokularia laguntzen ez nolana «sartzeko» antzoki atzera sinbolika gordeaz.
7. Antzokian ere bertsoak esatean trajektoria izateak laguntzen du, bereiziki antzotian errejentat baitago gerturik sekulan jokulariak ahaztu badu testua gogorarazteko.
8. Jokularien ibilbideak bailete baten moduan zuzenduak izateak, jokularia laguntzen badu, gustatzen zaio ere begiralearen ederrenari.
9. Bazterrak edo dekoraduak ere ekartzen dira ezaxolarik gabe denen agerian ez baita kortinarik ezeren ezkutatzeko eta gaurko antzerkilati batzuek hala omen dagite, pastoralak ikusi ondoren.

Beraz herri osoko jendea sartzea holako lan batean harri-garri irudi zaiete zuberotar ez direnei, baina abiatu ondoren ikus lezakete, nola bizpahiru aldiz ardietsi ondoren, nola zale-tasuna sortzen den, batzutan jende gehiegi azaltzen zelarik. Azken urteetan behintzat herrien zeingehiagoka badago Zuberoan, pastoralen emateko ez du horrek esan nahi elkarte batek ez lukeala egingo eta oso ederki eman zuten Abadia Urrustoi, ikastolako guraso, erakaste ta humeek.

Antzertia krisian dagoela diotebatzuek, baina ez ote da beti halaxen izan, literaturaren mugan dagoen horrekin; Zuberoan hamar aldiz haren heriotza iragarri da ta surten bi izan ditugu, eta azken hamarretan gutxitan faltatu da urte batez pastoralak. Ez du horrek esan nahi arazorik, ez dagoela: hizkuntzaren arazoa da haundiena ezen zuberokera euskara berezia baita, entzuleak frantses edo español direlako, eta orain, duela hogeitahamer urte hasita, hiru hizkuntzetako testuak saltzen dira, gure hizkuntza ulertzen ez dutenentzat.

Beste arazo bat da, trajeria gehienetan pertsonaia asko dela ta jokulari hainitz ezin bilduz eta ikastea hain urri izanki, lan gaitza dela pastoralak baten antolatzea.

Orain arte, Frantziaren inoialako laguntzarik gabe bizitu da pastoralak; agian, hemendik aurrera emango du zedozer hain azkar ta haundi den frantsesari hainbeste ematen diolarik, beti kanpotar bezala tratatu gaituztelako orain arte. Azken urteetan, nahiz liburuen argitaratzeko nahiz ikusgarriaren muntatzeko Eusko Jaurilaritzaren Turismo ta Kultura sailaren laguntza eduki dugu eta pastoralak bizirik badirau, entzulegoari zor dio ta ikusle-entzuleen erdiak, batzutan gehiago, Hegoaldeko anaiak ditugu.

Naski bere izaitzez eta bere mugen gatik, jokulariak, non-bait langille direlako, ezin da Europaren gaindi antzerti hori

erakutsi, baina orain arte Beljikako Alemaniako, Georgiako (Kartveliako) Ingalaterrako, Irlandako ta Italiako kanpotarrak interesatu zaizkigu eta filmatu dituzte pastoralak; bestalde gure adiskide katalanek aspaldixkan ezagutzen dute, baita bearnes ta aragoneses ere; dakizuen bezala Iñaki Beobide gure herri tarrak aspaldian filmatu ditu pastoralak, baita ta Euskal Telebistak edo Martin Ibarbiaren bideo zerbitzuak ere. Frantses telebistak askotan ez du dirurik norbaiten bidaltzeko Bordenetik, beraz gure antzertia europarra bada ez dakigu Frantzia Europar dagoenez.

Kanpotarren eritzia, gustatzen zaigu entzutea eta hor bi joera baditugu, bata ohiturazalea —ez da aldatu behar, zuberotarrei utzi behar zaiete, bestelan hilgo da— edo «aldatu nahi badute zuberotarrek egin bezate baina besteek ez dezatela imita» ikus dezagun ja?

Ulertzen ez duguna da ordea, katalanek beren Pastorets ta Pasioak herri antzerki oinarri bezala dituztela Joaquín Vilá i Folch dion gisa:

«No en va els catalans han tingut sempre una especial vocació teatral que es tradueix d'una manera ben evident en l'estructura de les seves festes algunes amb un impressionant sentit dramàtic, d'altres amb una sòlida estructura teatral i en les representacions d'allò que podriem anomenar teatre popular: les de'els Pastorets, que arrenquen dels misteris medievals nadalencs o les de les Passions, deis misteris pasquals o la força d'un teatre amateur que cada vegada te mes consciència de la seva responsabilitat cultural. (Antzerti 13, Donostia, 1986)

Beraz kataluniarentzat on dena Euskal Herri osoarentzat ezin? Boadellak honela dio; Patri Urkizuk galdetzen diolarik: *¿Considera que la pastoral puede ser trasplantable de su marco zuberotarra y ser germen de un teatro vasco moderno?*

Boadella: Yo soy partidario de que no se toquen estas cosas. Supongo que cada año, cuando se representan se introducen una serie de novedades ya. Esto puede estar bien, pues lo hace la gente del pueblo (sic) y son los que quizás tengan más sensibilidad para introducir novedades, pero el hombre de teatro no ha de poner las manos encima para nada. He hablado de rito y reitero dicho aspecto. Aquí en Cataluña en los últimos tiempos se han tocado las Pasiones y ya no son lo que eran.

Nahiz ez duen zuzenean erantzun, nola ulertu liteke normal izatea euskal antzerkian frantses, ingeles, errusiar eredia jarraitzea eta txartzat zuberotar eredia. Galdera ulertu ote du Boadella-k ez baita galdetzen ea —kanpotik zuberotar pastoralak huki behar denez— baina, bai, beste euskaldunek beren aldetik pastoralaren eredia erabil dezaten *Gabonetako ikuskizunetan*, holako zerbait zegoelarik?

Patri Urkizu-k euskal antzeslariarentzat eta idazleentzat aholkuak eskatzen dituzenean, argi dago Boadella-k ez duela lehenbiziko galderari erantzun zeren aitortzen baitu eta hori bagenekian Zuberotar pastoralak, Katalunian aztertzen eta ikusten dela honela baitio:

Tengo que añadir una cosa curiosa y es que, hace dos días estaba yo mostrando a la gente que tengo en un curso de teatro lo que era una pastoral utilizando unos discos y unas fotografías que tenía por aquí. Y les contaba lo que era una pastoral sugiriéndoles que todos fueran a ver dicho fenómeno porque me parecía absolutamente imprescindible que un hombre de teatro conociera lo que era un pastoral, ya que se trata de una de las riquísimas oportunidades que hay en el mundo de ver un teatro donde se huelen tan claras las reminiscencias del rito teatral.

(Ant. erti, ibidem, 3. orr.)

Euskal Herrian, Zuberoatik kanpo, pastoralak saioak egin ziren, baina oinarritzko arau batzu edo beste baztertzuz Boadella-k ziona gertatu zen, esate baterako Nafarroa Beheran egin saio batera jendea zozan zer zen pastoralak bat ez zekitelarik berak, herrikoak ikasi gabe, inplikatu gabe, ikasketen eta ikas-

taldien ikusten ibili gabe, utsean izan zen antzerkia, nahiz ez zuberoteraz eman baina herriko hizkuntzan.

Beste behin zuberotar seme batek —turistak gogoan ta frantses abertzaletasunez berotua— Karlo Magno ta Errolanen aldeko euskaldunen trufaz eta mairuen gaitzespenez, holako amerikano musika komedia bat antolatu zuen, erdi music-hall, erdi folklore eta pastoralaren jesto eta jokugintza osagai txiki batzu hartuz. Euskararen erabilpenaz kanpo —frantsesez tar-tekatua— turistentzat ez zen izan hor antzerki bereizirik folklo-re ikusgarria baizik.

Zoritxarrez ez nuen Larzabal-en pastorala ikusi, naski Lafitte-k esan bezala ez zituen zuberotar arau guztiak bete eta testua lapurtarrez izan arren, beharbada zuberotar *errejentaren* laguntzak lana erreztuko zukean; hori da oraindik egitekoa dena, gisa batez edo besteez, europar askok miresten duten trajeria, beste euskaldunek ere egitea. Baina beti diot holako antzertian alda ditezkenak badira eta ezin aldatuzkoak, antzerki erren ta maingu bat eman nahi ez bada.

Oiartzunen ere holako pastorala bat eman zen, edo hobeki esan *astolasterra* izan zen benetan komeria baitzen eta nor-baitzuen aurka idatzia gainera; holako saioak berritu behar litezke, eta Zuberoan ere *astolasterrak* antzeslari gutxirekin eta pertsonalkeriarik gabe eman litezke.

GEHIGARRI I

Zuberoako parropien saildu ta santak (pastorales gaiekin erkatzeko)

Eliza batzu, bi bider gerta litezke, bi saildu edota santaren izenpean agertzen direlako. Maiztasun aldetik lau saildu nagusi dira: Jaun Done Batista, Jaun Done Petiri, Jaun done Eztebe eta Jaun Done Marti.

Jaun Done Batista: Ainarbe, Haunze, Iruri, Jestase, Larrañe, Lohitzüne, Ospitalepea, Ozaze, Xarrikota Zuhare, Maule (?)

Jaun Done Phetiri: Altzai, Etxarri, Idaunze, Zunharreta

Jaun Done Eztebe: Arübe Arstüe, Oihergi

Jaun Done Martiri: Altzürrükü, Doneztebe (sic), Ezpeize Zalgize.

Andere Dena Maria: Aloze, Zihiga, Mendikota (ADM abuztukoa)

Andere Santa Grazi: Altzabeheti (?), Mintikile, Santa Grazi

Kristoren iragaitza: Barkoxe Gamere

Birjinaren «haurduntzea»: Etxebarre

San Andres: Bildoze, Onizepe

Santa Añez: Altzai

San Bixente: Arhane Garindaiñe

San Bladi: Ospitalepea.

Donaixti: Lexose, Olhaibi

San Borttolome: Larrori

San Julien: Ligi, Omizegaineakoa

Santa Kattalina: Ezpelze Arrokiaga

San Laurentx: Mendibile

Santa Lúxia: Atarrate

San Mikel: Urdiñarbe; San Sanson: Ithorrotze, San Saturni: Xarrikota pea, San Sebastien: Liginaga

San Tomas (sic): Berrogaiñe San Xipri Muskildi, Zühara.

Goiko zerrenda hau ikusita, pastoraletako saildu bizitza mordo batek ez *du Zuberoan aldarerik*: Aletsis, Anastasio, Antoni, Beronika, Elisabete, Eustaki, Eufemia, Filipma, Helena, Hippolito, Jenebiba, Jeroma, Margarita, Roke eta abar... baina *parropietako saildu gehienak hor daude*, naski Kristo ta Birjina izan ezik, horiek pastoraletan sekulan ez baitute agertu behar. Badirudi halere, dakidanez, Laurentx, Mikel, Sanson ta Saturni sailduz ez *dela pastoralarik egin*. Beraz ohoratzeko, behin edo beste, sailduaren pastorala emanerazi duela, baina ez da derrigorrezkoa, saildu baten bizitza bereiziaz agin baitzezakean aukera.

GEHIGARRI 2

Pastoralaren azken itxuragabetze batez

Egia da, gure urteetan, pastoralak izugarritzko arrakasta izan duela, kantatua delako —eta abots ederrak eta kantu eskola bat dago Zuberoan— eta politika gai minberak aipatzen dituelako. Azken urteetan pastoraletan bizitasunean irabazi dute, baina Larrañen ikusi dugun Xalbador, pastoraletan izenpean agertu denak —ondo kantatua eta emana izateaz kanpo—

1. Agerraldien erditan ez zuen Xalbadorren bizitza kontatzen
2. Xalbadorren anderea —holako garrantzia izan duena— ia ez zen aipatzen.
3. Pastoralaren erdia R. Ildari idazlearen, kezketara zuzendua zen. Ez dut erran nahi ez zirela eta ez direla gure kezkek, baina ez zuten ezer ikusteko Xalbadorren bizitzareekin.
4. Arruntkeriak, traukilkenak, iraiñak Satanen ahotik atera behar dute, baina hemen beti «frantsesen» ahotik iritzen dira.
5. Idazleak bi gauza nahasi ditu, pastorala, tragedia izenaz ere ezaguna eta astolasterra komedia dena, zuberotarrek gaizki hartu dutelarik bi gai eta bi mintza mailen nahastea.
6. «Eskalanproin handiek» agertu zaigu idazlea, eta ohi ez den moduan, abesleen zuzendari; gainera Larraintarren erakartzeko, Larrañeko gal batzu sartu ditu, abertzale borroka batzu, Xalbador-ekin ezer ikusteko ez zutenak.
7. Ongi abiatu pastorala hortan, laister zirristatzen da, ta gero zazpi probintzien abestiaz kanpo, Xalbadorren hiltzea eta haren bertsoak dira onak.

Zuberotar antzerkiak birdefinita bat merezi luke ta entzuleen errespetuz, pastorala izenpean ipini liteke komedia ala tragedia denetz, pastoral-antzerkia ala pastorala kantatua, bestelan urrezko arraultzak ematen dituen oilloa itoko da.